

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

33/2019 Mozioa, urriaren 23koa, Gernikako Estatutua berritzeari buruz eta herritarren erabakitzeko eskubideari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko urriaren 23an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

33/2019 Mozioa, urriaren 23koa, Gernikako Estatutua berritzeari buruz eta herritarren erabakitzeko eskubideari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek, Gernikako Estatutua onartu zeneko berrogei urte bete direla, positiboki baloratzen du euskal herritarren arteko bizikidetzarako eta gure autogobernua erdiesteko tresna gisa.

2. Arabako Batzar Nagusiek gobernu zentralari eskatzen diote jendaurrean berretsi dezala euskal gizartearekin Gernikako Estatutua osorik betetzeko duen konpromisoa, eta dei egiten du bere osotasunean garatzeko eta burutzeke dauden eskumenen transferentziak gauzatzeko, Eusko Legebiltzarrak hainbatetan adierazi duen bezala.

3. Arabako Batzar Nagusiek adierazten dute Gernikako Estatutua osorik betetzea Euskadiko herritarren eskubide eta agindu bat dela eta, alde horretatik, hori lortzeko egin beharreko negoziazioak gardenak izan behar direla eta ez direla helburu partidistetarako erabili behar.

4. Arabako Batzar Nagusiek aitortu egiten dute Gernikako Estatutua berritu behar dela eta Eusko Legebiltzarrari eskatzen diote autogobernua hobetzeko eta eguneratzeko ponentziaren lanekin jarraitzeko. Autogobernutzat dugu historikoki euskal herritarrok euren burua gobernatzeko baliatu duten eskubidea, eta honako hauek jasotzen ditu, besteak beste: eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak sendotu eta zabaltzea; emakume eta gizonen arteko berdintasuna; belaunaldien arteko elkartasuna; Euskadiren barne erakundetzea taxutzea edo instituzioen eta herritarren arteko harreman-modu berriak. Halaber, ponentzia horrek Euskadiko herritarrek demokratikoki adierazitako borondate politikoa errespetatuko du.

5. Era berean, Arabako Batzar Nagusiek adierazten dute Gernikako Estatutuaren Xedapen Gehigarria indarrean dagoela guztiz: "Estatutu honetan ezartzen den autonomia-erregimena onartzeak ez dakar berekin Euskal Herriari bere historiagatik legozkioken eskubideei uko egitea; eskubide horiek eguneratu ahal izango dira, antolamendu juridikoan ezartzen denaren arabera". Arabako Batzar Nagusien uste dute, Euskal Herriaren Eskubide Historikoen erabateko gauza-pena, bere autogobernuaren adierazpen instituzional gisa, herritarrok libre eta demokratikoki adierazitako erabakitzeko eskubidearen bitartez agertu beharko dela, eta eskubide hori baliatzea Estatuarekin adostu beharko dela.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 23a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA